

DATU PERTSONALAK BABESTEAREN GAINEKO INFORMAZIOA

Datu pertsonalen tratamendua honako arau hauen arabera egingen da: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko erregelamendu orokorra) indargabetzen duena; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoa. Erregelamendu horren 13. artikuluan xedatutakoa betetzeko, hauxe jakinarazten da:

TRATAMENDU AREN ARDURADUNA	Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua Tomás Caballero parkea 1. 31006 Iruña. desarrollo.economico@navarra.es Nafarroako Gobernuko Datuak Babesteko Ordezkaritza Karlos III.aren etorb. 2. 31002 Iruña. dpd@navarra.es
TRATAMENDU AREN XEDEA	Zure datuak tratatzen dira deialdi honen laguntzen kudeaketarako. Gainera, aurreikusi da helburu estatistikoetarako erabiltzea. Emandako datu pertsonalak gordeko dira tratamenduaren helburuak betetzeko behar den denbora guztian.
TRATAMENDU AREN LEGITIMAZIOA	Tratamendua beharrezkoa da interes publikoko misio bat betetzeko edo botere publikoak erabiltzeko, hala nola dirulaguntza bat ematea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean adierazita dagoen moduan.
DATUEN JATORRIA	Identifikazio datuak, harremanetan jartzekoak, sozioekonomiko eta finantzarioak eta, behar denean, lan jardunari buruzkoak, batez ere eskabidean emanen dituzunak dira. Beste batzuk harreman administratiboan zehar sortzen dira, eta beste zenbait, berriz, beste administrazio eta erakunde publiko nahiz pribatuetatik jaso beharrekoak dira, kudeaketa egokia egingen bada.
DATUEN HARTZAILEAK	Datuak lagatzen ahalko zaizkie Nafarroako Gobernuaren beste organo batzuei, baita beste administrazio publiko batzuei edo kontroleko agintari, epaimahai eta erakunde publikoei ere beren egitekoak bete ditzaten. Finantza entitateei ere lagatzen ahalko zaizkie, ordainketak kudeatzeko eta legezko betebeharrengatik.
ESKUBIDEAK ZURE DATUAK EMATEN DITUZUNEAN	Zure datuei dagokienez honako eskubide hauek baliu ditzakezu: • Datuetan sartzeko eskubidea: jakiteko zer datu ari diren tratatzen. • Zuzentzeko eskubidea: okerrekoak edo osatugabeak direnean. • Mugatzeko eskubidea: tratamendua mugatzeko; kasu horretan, bakarrik erabiliko dira erreklamazioak aurkezteko edo horietatik defendatzeko. • Kontra egiteko eskubidea: zure datuen tratamendua eten dadin, salbu eta bidezko arrazoi larriak badaude edo erreklamazioak aurkezteko edo defendatzeko. • Ezabatzeko eskubidea: zer helbururekin jaso ziren, xede horretarako beharrezkoak ez diren datuak ezerezteko. • Datuak eramangarriak izateko eskubidea: zuri zure datuak ematekoa, gero beste erakunde arduradun bati emateko. • Adostasun errebokatzeko eskubidea: esan nahi du edonoiz egin daitekeela atzera adostasunean, tratamendurako baimena eman ondoren, horrek eraginik ez duela emandako baimenean oinarrituriko tratamenduaren zilegitasunean, eta hortik etor daitezkeen ondorioekin.

Eskubide horiek erabiltzeko, idazki bat aurkeztu beharko duzu, Garapen Ekonomiaren eta Enpresarialeko Departamentuari zuzendua.

Zure eskubideak erabiltzeko idazkien ereduak Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren webgunean aurkituko dituzu (www.agpd.es).

Halaber jakinarazten zaizu erreklamazioa aurkezten ahal diozula bai kontrol agintaritzari, datuen babesaren alorrean eskumena duenari, bai Nafarroako Gobernuko Datuak Babesteko ordezkariori.